



KONGOKO ED, MOLIBA MAKAZI

**(EDO NOLA GAINDITU ZAILTASUNAK ELKARREKIN ARRAUN EGINDA,
GARAIK ZAILAK IZAN ARREN)**

Kongoko Errepublika Demokratikoa, zoritxarrez, guztiontzat ezaguna da azken bi hamarkadetan herrialdearen ekialdea suntsitzen ari den gatazka armatuagatik, emakumezkoentzako herrialderik txarrena izendatua izateagatik edo azken postuetan egoteagatik Nazio Batuen Garapen Programak urtero argitaratzen duen Giza Garapenaren Indizean.

Baina zifra horiek alde batera utzita, horien atzean, herrialde bat dago, eta, batez ere, beren lurraldearen garapena eraikitzeko gaitasuna duten herritarrak daude. Deshumanizazio-mugen artean bizi diren arren, gai dira begirada jaso eta beste Kongo bat posible dela amets egiteko, eta egunero hori lortzeko lan egiteko. Herrialdearen ikuspuntu zabalago eta positiboago hori islatzen dugu esku artean duzun fitxan.

2006an onartutako konstituzioaren arabera, Kongoko Errepublika Demokratikoa zuzenbidezko estatu bat da, independentea, bakarra eta zatiezina, demokratikoa eta laikoa, eta Kinshasa du hiriburua. Afrikako herrialde handienetako bat da (hedaduraz, Aljeria bakarrik da handiagoa), eta Afrika Erdiko Errepublika, Sudan (Hegoaldekoa), Zambia, Angola, Ruanda, Uganda, Burundi, Tantzania, Kongoko Errepublika eta Angola ditu mugakide. Guztira, 69 milioi pertsona bizi dira bertan, eta Afrikako laugarren herrialde populatuena da. Bertako moneta franko kongoarra da, eta hizkuntza ofiziala, frantsesa. Horrez gain, beste lau hizkuntza nazional hitz egiten dira: lingala, swahilia, tshiluba eta kikongoa.

Lehen esan dugun bezala, Kongoko Errepublika Demokratikoa Afrikako bigarren herrialde handiena da hedaduraz, eta paisaia-mota asko ditu, hegoaldeko sabanatik hasi eta mendien eskualderaino, Afrikako laku handietatik igaroz (persona askorentzat, munduko lakurik politenak). Eta ez dugu ahaztu behar oihan tropikala, munduko bigarren handiena baita, Amazoniako oihanaren atzetik. Esan genezake dibertsitate biologiko handieneko herrialdeetako bat dela. Kongon hainbat parke nazional daude, eta horietako 5 Gizateriaren Ondare izendatuak ditu Unescok. Tamalez, gaur egun, gerra dela eta, arriskuko gunek gisa daude sailkatuak erakunde horretan.

Faunaren dibertsitatea ere handia da. KEDn bizi diren zenbait espezie oso bitxiak dira, eta batzuk, gainera, herrialde horretan bakarrik aurkitu daitezke; esate baterako, hauek: okapia, mendi-gorila (Gorilak laino artean filmagatik ezagunak), bonoboa, txinpantze arrunta edo Kongoko pauma.

***Nolanahi ere, aniztasun hori ez da ingurumen-kontuetara mugatzen;
kultura-aniztasuna ere nabarmena baita. 250 talde etniko inguru daude,
eta kalkulatzen da 242 hizkuntza hitz egiten direla.***

Kulturari dagokionez, zailtasuna gaitzat hartu duten eta beste herrialde bat eraikitzeko gogoia inspirazio-iturri duten zenbait artistaz hitz egin dezakegu, eta horiez baliatu Kongoko ekialdean gertatzen dena erakusteko eta salatzeke. Zenbait adibide aipatuko ditugu: Cheri Cherin pintoreak Guggenheimen erakutsi zuen bere obra 2006an; Julie Djikey artista performistak performanceak erabiltzen ditu kutsadura salatzeke eta haren aurka egiteko; Freddy Tsimba eskultoreak herrialdearen egoera ezagutarazi nahi du eskulturen bidez; eta Kpou Ambitiri dantza-taldeak dantza tradizionaletatik bizitzeko modua lortu du, gerratik ihes egin eta gero. Beste artista batzuk, berriz, herrialdean bakea lortzearen kantatzeko eta dantzatzeko elkartu dira.

Azkenik, hemen duzue Uele ibaiko arrantzale batzuen abesti baten mezua; abestia sehaska-kantu gisa kantatzen da gaur egun, eta Gatazkari Gabeko Teknologia kanpainaren espiritua biltzen du¹:

Kondairaren arabera, arrantzale haiek ontzian atera ziren arrantza egitera; baina itzultzekoan, ezer arrantzatu ez zuten, beste leku batera joatea erabaki zuten; bidea kantuan egin zuten, Kasai jainkoari laguntza eske. Ibaia korrontea handiegia zen, ordea, eta ezin zuten gaingitu. Orduan, Benguela jainkoari eskatu zioten laguntza, arbasoen espirituekin bitartekotza-lanak egiten zituen jainkoari.

Abestiak adierazi nahi digu ezen, bidea zaila izan arren, arrainik ez egon arren, korrontea handia izan arren, elkarrekin egiten badugu arraun, gure helburua lortuko dugula.

¹ www.gatazkarikgabekoteknologia.org

ARIKETA-PROPOSAMENA

MOLIBA MAKASI

Helburua: Artearen ahalmena ikusaraztea, une latzak gainditzeko laguntzeko.

1. proposamena: Moliba Makasi abestia.

Kanpainan zehar aurkeztuko dizuegun gaia latza da, eta inork ez du esango ez diola axola. Jarduera honen bidez, nabarmendu nahi dugu musikak ahalmen handia duela gure espiritua une latzetan baretzea lortzeko. Era berean, musika lagungarri izan dakiguke ekinean jarraitzeko indarra eta inspirazioa izateko, eta aldaketa erdiesteko.

Parte-hartzaileei eskatuko diegu biribilean jartzeko, eta beren aukietan edo lurrean esertzeko, begiak itxita dituztela. Isiltasunean eta jarrera erosoan daudela, eskatuko diegu arreta amasketan jartzeko. Ariketak bi zati ditu.

Lehenengoan, kanpainaren trailerra entzungo dugu: errealitate lazgarri bat erakutsiko digu bideo horrek, eta barnea "astindu" diezaguke. Lehen bideo hori ikusitakoan, barnean hautematen dugun sentimendua paper batean idatziko dugu.

Bigarren zatian, Molimba Makazi abestia jarriko dugu, eta parte-hartzaileei esango diegu arreta amasketan jartzeko, soinuak, musika, ahotsak... entzuteko.

Abestia amaitzen denean, barnean duten sentimendua adierazten duen hitza idatzi behar dute. Ondoren, elkarri konta diezaiukete nola bizi duten aldaketa, lasaitzen, hobeto sentitzen, lagundu dien. Amaitzeko, abestiaren kondaira kontatuko dugu.

Materialak:

- ⇒ Baobab-eko abestien CDa
- ⇒ <https://www.youtube.com/watch?v=dhSHmx9o4Kg>
- ⇒ Erreproduzitailea edota; bozgorailuak eta Interneteko konexioa dituen ordenagailu bat.

2. proposamena:

Bigarren aukera, fitxan aipatzen diren artistei buruzko informazioa bilatzea da. Ondoren obra bat hautatu, eta erakusteko leku bat aurkitu. Erakusketa bat egingo dugu obra guztiekin; haietako bakoitzaren ondoan, kaxa huts bat eta orriak eta boligrafoak utziko ditugu, erakusketara joaten diren pertsonak idatz dezaten obra nola interpretatzen duten, edo zer sentimendu eragin dien; gero, orria kaxan sartuko dute, izena eman gabe.

Materialak:

- ⇒ Boligrafoak
- ⇒ Kaxa hutsak
- ⇒ Erakusteko elementuak

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK



“Canciones y nanas de Baobab” liburua:

<http://editorialkokinos.com/canciones-infantiles-y-nanas-del-baobab/>



“Because I am happy”: <https://www.youtube.com/watch?v=fq1uN2jbPlg>



“Stop a la guerra”: <https://www.youtube.com/watch?v=cOhG0BifURE#t=55>



Atzerri Gaietarako Ministerioko fitxa:

http://www.exteriores.gob.es/Documents/FichasPais/CONGOKINSHASA_FICHA%20PAIS.pdf



Kinshashako kultura-egoera berriaz National Geographic-en artikulua:

http://www.nationalgeographic.com.es/articulo/ng_magazine/reportajes/8765/kinshasa_pulso_urbano_del_congo.html#gallery-15



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

-en proiektu bat



lortzeagatik

www.gatazkarikgabekoteknologia.org